

ek!

eta kitto!
euskara elkarte

2024ko maiatzak 31 - 1315 zenbakia



ESPERIENTZIA GRADU BAT GEHIAGO



Recalde

Clínica Oftalmológica
Oftalmologi Klinika

Fokatu hemen
zure mugikorrarekin
eta irritai
gure webgunera



•Kataraten eta presbiziaren kirurgian espezialistak.

Plaza Barria, 2. 2º
Telf.: 943 301 844 - EIBAR
www.clinicarecalde.com



ESPAZIO GEHIAGO MEREZI DUZULAKO

ARRATE HOMES • EIBAR

Erreal plaza ondoko
eraikuntza berriko etxebizitzak.
Garajea • Gimnasioa
Gourmet aretoa • Trastelekua

Zatuz Neinor Store-ra
Bidebarrieta Kalea 6, Eibar

ETA EZAGUTU GURE PROMOZIO BERRIAK

* Komunikatu lege-eremotik

 **Neinor** HOMES

900 11 00 22 • neinorhomes.com



BENICOBA

J. Gisasola, 12-14

*Agur esatera
goazen honetan
gure esker ona
adierazi nahi
dizuegu urte
hauetan gudan
jarri duzun
konfiantzarengatik.*

ESKERRIK ASKO

Jarraitu gaitzazu!



@etakitto



etakitto.eus

Txaranga berria dugu Eibarren: Latuna Bando. Musikari gehienek Eibarko Bandan jotzen dute, baina baina badago Ermua, Soraluze, Elgoibar, Deba, Mendaro eta Legazpiko jendea ere. Guk Andoni Ariznabarreta eta Aner Cardorekin egoteko aukera izan dugu.



ARGITARATZAILA

...eta kitto! Euskara Elkarteak

HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

603 598 285

FAXA 943 20 28 72

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkarteak@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose

Luis Gorostegi, Silbia Hernandez

eta Yanire Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINUA

Maku Oruezabal

MAKETAZIOA

...eta kitto! astekarria

HIZKUNTZA ARDURA

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA

Belen Ulazia

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA

Silbia Hernandez

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



EIBARKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Eskutitzak



Hortik esanak



Topinburu bizirik!

Idatzi honen bitartez Parke Eolikorako proiektu **berri** bati buruz aitzen eman nahi nizuke denori. Eta, bide batez, nire **sumindura** eta **gaitzespena** adierazi gure herrimugartean, Eibarren eta beste bi udal mugartetan, Elgetan eta Bergaran, 6 haize-sorgailu jartzeko aurkeztu den Basalgoko Parke Eolikorako proiektuari. Gure ondare diren mendiak babesteko eta kontserbatzeko zaindari nagusiak izan beharko lukeen gure Udalari ingurumenarekiko sentsibilitatea, kontzientzia eta konpromisoa eskatzen diot. Ekologiarekiko eta Ingurumenarekiko koherentziaren alde.

Mireia Agirrebeña

Eskola kirolaren egoera kezagarria Eibarren

Udalak ez du bere gain hartu dagokion ardura eta hurrengo ikasturteko eskola kirola kili-kolo dago. Udalak ez dio ERAIN elkarteari -familien elkarte- dagokion diru sarrera egin, alegia, daukan hitzarmena ez du bete. Horretaz gain, Foru Aldundiko Irizpideak aintzat hartuz, Eibarko eskola kirola ereditutik urrun geratzen ari da, "Eskola Kirolaren diagnostikoa eta egituraketa proposamena" txosteneko datuak ikustea besterik ez dago eta honi "Eibarko segregazio-egoerari aurre egiteko prozesuaren" emaitzen txosteneko datuak gehitzen baldin badizkiogu Eibarko hezkuntzaren eta eskola kirolaren egoera arduragarria da. Foru Aldundiko Irizpideek haurra erdigunean jartzen dute eta irizpideak bete egin behar dira. Horregatik eskatzen dugu:

- Udalak herriko adingaberen premiei eta herri kohesioari erantzuteko aukerak bermatu ditzala.
- Udalak Eibarko Eskola Kirolaren koordinazioaren ardura bete dezala, eta ERAIN elkartearekin duen hitzarmena bete dezala, Eibarren eskola kirol jarduerak Gipuzkoako Aldundiko irizpideak bermatuz garatzeko.
- Udalak ERAIN elkartearekin elkarlanean, plan integral bat definitu dezala hiru hileko epean, eskola kirola eta hezkuntza ez formala tresna gisa erabiltiaz, aisialdi eskaintza eta eredua berregituratzeko.

Eibarko EH Bilduren udal-taldea

Hogeita hamar urtetan, hartara jarrita, bost hizkuntza ikas daitezke. Bost urte hizkuntza bakoitzeko, eta bi hizkuntzaren artean urte sabatikoa hartuta. Hori adimen normala daukan edozein herritarrek egin lezake, baina Bilboko Guggenheimeko zuzendari Juan Ignacio Bidarteren adimena edukita, epe berean zortzi ikas litezke; tartean sanskrito klasikoa eta Marten 50 urte barru hitz egingo den martera. Guggenheimeko zuzendari izan den hiru hamarkadotan berarekin gaztelaniaz hitz egitera behartu ditu Bidartek museoko arlo arduradunak, langileak, soldata ordaintzen dioten erakundeetako arduradun politikoak, kazetariak, artista euskaldunak... Kontratatu dute Guggenheimen japonieraz edo alemanez bakarrik dakien bat, munduko zuzendaririk onena izanda ere? Edo gaztelaniaz jakin beharko du?

MARTXELO OTAMENDI, kazetaria

Landa eremuko biztanleen eta neorruralen artean gatazka bat baino gehiago piztu da Frantzian. Landetako usain eta zaratek sarritan enbarazu egiten diete etorri berriei, eta hauek kexu dira, oso, eta dena judizializatze joera dutenez, auziak areagotu egiten dira, arazo potoloa bihurtzeraino. Duela gutxi Frantziako Parlamentuak lege baten bidez ebatzi behar izan du usainak eta zaratak bertakoak direla, eta kito. Etorri berriak dira egokitu behar dutenak. Ez alderantziz. Lege honek, nolabait, neorruralen eskubideak mugatzen ditu, baina azkenean mundu guztiak ulertuko duelakoan daude. Logikoa da. Hau gure eremura ekarrita, aldiz, oso ezberdina izaten ari da euskararen auziari dagokionez. Lanpostu publiko baterako oinarriko ezagutza maila eskatuz gero, edozein epailek esan dezake diskriminatzaila dela. Justiziak, gure kasuan, beste begian dauka benda jarrita.

ALBERTO APILANEZ, Berriako irakurlea

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

PANPANA JO → Harropuzkerietan ibili. "Behin alemaniarra ba ei ebillen panpana joten Plaentzian ez eguala bera lango murgilaririk esanaz".

PANPANA HARTU → Afandu, afanoso jarri, harropuzkerietan ibili. "Aspaldixan panpanduta dabiz hiru partidu segixan irabazi dittuelako".

TUTULUMENDI



Idurre Iriondo

Farmaziak

BARIXAKUA 31
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
ZAPATUA 1
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
DOMEKA 2
EGUNEZ Morgado (San Agustin, 3)
ASTELEHENA 3
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
MARTITZENA 4
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
EGUAZTENA 5
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
EGUENA 6
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
BARIXAKUA 7
EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)
GAUEZ BETI, 2024an, Lekunberri (Isasi, 31)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekoa	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 38
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **Francisco Javier Gamazo Isasi.** 72 urte. 2024-05-15.
- **Pilar Alzelai Albizuri.** 67 urte. 2024-05-22.
- **Juan Arregi Etxebarria.** 93 urte. 2024-05-23.
- **Eloy Dieguez Casares.** 80 urte. 2024-05-24.
- **Manuel Sanchez Jurado.** 87 urte. 2024-05-25.
- **Juan Luis Azpiri Garetxana.** 81 urte. 2024-05-25.
- **Susana Carrera Diaz.** 66 urte. 2024-05-27.



Datorren astelehenerako elkarretaratzea azkena izango da, irailera arte

Eibarko Pentsionisten Taldeak datorren astelehenean egingo du ikasurteko azken elkarretaratzea, pensio duin eta publikoen alde. Astero bezala, kontzentrazioa 12:00etan hasiko da, Untzagan. Ondoren, irailera arte ez dute elkarretaratzerik egingo, “ordura arte ez delako Legebiltzar berria osatuko. Gure eskaerak alderdi politikoei helarazi dizkiegu eta erantzunaren zain gaude”. Datorren asteleko ekitaldian pentsiodunek pankarta guztiak aterako dituzte, egiten dituzten eskaera guztiak batera erakusteko.



Merkal dendako langileen elkarretaratzea

Prekariotzat jotzen dituzten baldintzak hobetzeko asmoz, greba deitu zuten Merkal Calzadoseko langileek apirilean. Orduetik, barixaku eta zapatu guztietan egin dituzte elkarretaratzeak, eta aurreko zapatuan, maiatzak 25, Eibarko denda parean egin zuten.

Urriaren 26an ospatuko dute kintoen bazkaria 1962an jaiotakoek

Urriaren 26an ospatuko dute aurtengo kinto eguna 1962. urtean jaiotakoek: “Eguerdiko 13:00ean elkartuko gara, udaletxeko arkupeetan, zerbait hartu eta, 15:00etan, Arkupe tabernara bazkaltzera joateko. Gauerako plana ere izango dugu, Koskorren”. Izen-ematea burutzeko, 85 euro sartu beharko dira ondorengo kontu korrontean, izen-abizenak argi adierazita: ES71 2095 5035 00 9112668939. Diru-sarrera egiteko azken eguna urriak 8 da.



Eskualdeko ekoizleen azoka egingo da domekan

Domekan Debarreneneko ekoizleen azoka egingo da Untzagan, 10:00etatik 14:00etara, Eibarko Udalak eta Debemen elkarteak babesturik. Bertan parte hartuko duten ekoizleak ondorengoak izango dira: Goienetxe baserria (Mutriku), ardi gaztarekin; Mausitxa baserria (Elgoibar), Idiazabal jatorri izendapena duen ardi gaztarekin; Egotza baserria (Soraluze), ahuntz gaztarekin; eta Lizagasar (Elgoibar), sagarrekin ekoizturiko produktuekin (sagardoa, marmelada, sagar-dultzea, sagar-ozpin ekologikoa...).



Eibar-Ermua martxa bateratua egingo da domekan Palestinaren alde

Eibar Palestinaren taldeak eta Ermua Palestinarekin Ekimenak Palestinaren aldeko martxa bateratua antolatu dute domekarako, “indarrak batu eta pertsona gehiagoren parte-hartzea bultzatzeko” helburuarekin. Manifestazioaren zutabe bat Ermuko plazatik irten-go da, 12:30ean, eta beste zutabea Untzagatik, 12:00etan. Martxa biak Sallabenteko basiliza ondo-ko frontoian elkartuko dira, 13:00 inguruan (tren ez ere joan daiteke, San Lorentzo geltokian jaitsiz). Bertan, gehienez ordu erdiko iraupena izango duen ekitaldia egitea aurreikusten dute antolatzaileek.

Eibarko Guraso Elkarteek mezu bateratua zabaldu dute familien artean, Eskola Kirolaren egoera larria azaltzeko

Herriko ikastetxeetako guraso elkarteak egitura bakar batean bildu dira, Eibarko haurrentzako kirol-jarduerak berritzeko, eta hobetzeko prozesuan modu eraginkorrean lan egiteko asmoz. Hezkuntza Ez Formaleko Eibarko Erain Elkartearen izenarekin hasi dira lanean, eta herriko 2.000 ume ingururen familiei Eibarko Multikirolak proiektuaren gaur egungo egoera azaltzen duen gutuna bidali diete, besteak beste eskola kirolak gaur egun bizi duen egoera larriaz ohartarazteko. Diotenez, aurtengo urtarrilean, 2024-2025erako Multikirolak proposamen berritua lantzen hasi ziren, “Eibarko haurren beharrei egokituta”, baina aurrera egiteko

oztopoak aurkitu dituzte: “Urtarrilaren 30az geroztik, eskola kirolaren mahaia geldirik dago. Izan ere, udalak, koordinazioaz arduratzen den erakundeak, erantzukizun horri erantzuteari utzi dio, kirol teknikariak lanpostua utzi zuenetik. Lanpostu hori ez da ordezkatu”. Gainera, laguntza tekniko eta Udalarekiko interlokuzioa galdu dutela diote, eta klubek iazko lanagatik jaso beharreko ordainketarik ez zutela jaso. Salatu dutenez, “Eibarko Lehen Hezkuntzako zazpi ikastetxeek osatutako egitura berria kudeatzen hasteko finantzazioa ez da iritsi, eta ez dago baieztatuta iritsiko denik. Hala, ez dago hurrengo edizioa kudeatzeko gaitasunik”.





IPAR

SURF
SKATE
ESKOLA

Udako eskolan izena emateko epea zabalik!

SURF | TXIKISURF | SKATE | PADDEL

Markiegi kalea 2 - Deba

iparsurfskate.com | info@iparsurfskate.com | 627 32 51 35





Kirola Euskaraz Bizi jaia egingo da bihar Iturburun

Juan Antonio Mogel ikastolakoek Kirola Euskaraz Bizi jaialdiak ospatuko ditu bihar eta hurrengo zapatuan (ekainak 8), Iturburun. Bihar 08:00etan hasiko da Eibartik Iturburura igotzeko autobus-zerbitzua. Jaialdia, berriz, 10:15ean hasiko da, talde guztien desfilearekin. Jarraian, “Euskara da Euskal Herri-Bazen behin” kantatu eta dantzatzeko unea izango da. Hortik aurrera kirol-probak jokatu dira (10:45etik 13:30era), eta goizekoak agurtzeko “Harro herri Korrika” abesti/dantza egingo da 13:30ean. Eta 15:00etatik aurrera, Adolfo Jainagaren saioa, apar-festa eta domina-banaketa egingo dituzte.

Helmet House saritu dute 2024ko Gipuzkoako Merkataritza Enpresa gisa

Gipuzkoako Merkataritza Ganberak Eibarko Helmet House 2024ko Gipuzkoako Merkataritza Enpresa izendatu zuen aurreko barixakuan ospatutako Gipuzkoako Merkataritza Enpresa Sarien ekitaldian. 30. edizio horretan, beste bi negozio saritu dira: Tolo-sako Zuzeu eta Bergarako Ekilur Parafarmazia-Belardenda.

Horiez gain, Gipuzkoako Ganberak sariak Gipuzkoa osora hurbildu nahi izan ditu aurten ere, eta 10 saltokiri eman die saria,

lurraldeko eskualde bakoitzeko bana, herritarren botoaren bidez aukeratuak. Debabarreneko eskualdean saria Eibarko Klaus enpresarentzat izan da. Beraz, zorionak Eibarko bi enpresei. Ekitaldia Donostian egin zen, Gipuzkoako Merkataritza Ganbararen egoitzan, eta bertan izan ziren Ane Insausti Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako diputatua eta Elena Moreno Eusko Jaurlaritzako Merkataritzako zuzendaria.



“Herri libre bat” kanpaina eskualde mailan aurkeztuko dute astelehenean Soraluzen

Debabarreneko Gure Eskuk eskualde mailako aurkezpena egingo du astelehenean Soraluzen, Kalebarreneko udal lokal berrian, 19:00etan. Azaldu dutenez, “erabakiaren bidea elkarrekin egitea helburu duen *Herri libre bat* bi urterako dinamika berria hasi genuen martxoan, eta hurrengo ekimenetara begira jartzeko unea ailegatu da orain”. Kanpaina ahalik eta gehien zabaltzeko asmoz, ba-

tzar irekiak egiten ari dira eskualde guztietan. Soraluzeko batzarrean dinamikaren hurrengo ekimenen nondik norakoak azalduko dira: “Euskal Herria eta herritarrok erabakiaren bidean martxan jartzea da helburu nagusia, eta ildo horretan kokatzen da *Herri libre bat* kanpaina”. Josu Etxaburu eta Unai Oyarzabal izango dira hizlariak, eta saioak ordubete inguruko iraupena izango du.



Gipuzkoako Jende Xumearen tonbola solidarioa bihar Untzagan

Gipuzkoako Jende Xumea taldearen eskutik, 2.000 sari baino gehiagorekin prestatu duten tonbola solidarioa egongo da martxan Untzagan, egun osoan. Gainera, goizean Izartxo aisialdi taldearen laguntzaz, haurrentzako ekintzak egongo dira. Azaldu dutenez, “egun osoan zehar tonbolarako boletoak erosi, zerbait hartu, eta gure merchandising-a erosteko aukera egongo da”.

Boluntariotzan hezten ari diren Eibarko, Zarauzko eta Donostiko gazte kuadrila batek osatzen dute taldea, eta aurtengo udan Boliviara, Santa Cruz de la Sierrara joan nahi dute. Diotenez, “Proyde-Proega GGKE-ren babesean ari gara ibilbidea egiten. Bolivian barnetegia duen eskola batera joango ginatke, eta bertan ahal dugun guztian lagunduko genuke. Hango gazteek eskolan pasatzen dute aste osoa, zenbaitek gurazorik ez dutelako, eta beste batzuk etxean zaintzarako aukerarik ez dutelako. Gazte hauekin lan egiteko aukera suertatu zaigu, eta ziur gaude beraiei laguntzeko gai garela. Horretarako, laguntza gelak prestatuko genituzke, eskola konpondu eta jolasak prestatu, beste batzuen artean”.

Ekainaren 10ean zabalduko dira Txaltxa Zelaiko ur-jolasak

Aurtengo udarako instalazioen eskaintza handiagoa izango da, Ipu ruako kanpoko igerilekuei beste elementu berri bat gehitu behar zaie eta: Txaltxa Zelaiko ur-jolasak. Instalazio berriak ekainaren 10ean ipiniko dituzte martxan, egun haue tan egiten ari diren probak gaintitu eta gero. Kanpoko igerilekuak, bestalde, ekainaren 8an zabalduko dituzte eta irailaren 29ra arte era-

bili ahalko dira, honako ordutegian: uztailaren 31ra arte, 10:30etik 20:30era; abuztuaren 1etik irailaren 8ra arte, 10:30etik 20:00etara; eta irailaren 9tik 29ra bitartean, 11:00etatik 19:00etara. Aurreko urteetan denboraldia irailaren erdialdean amaitzen zen, baina, azken urteotako tenperaturak ikusita, Udalak irailaren 29ra arte zabalik edukitzea erabaki du.

Eibar, Bergara eta Elgetako lurretan parke eolikoa jartzeko baimena eskatu dute

Arena Power Solar 10 S.L. enpresak Eibar, Bergara eta Elgeta artean parke eoliko bat eraikitzeko baimena eskatu dio Eusko Jaurlaritzari. Parke eoliko horrek sei errota izango lituzke eta 39,6 megawatteko potentzia. Eibarko egitasmoaren berri eman zuen barixakuan EAEko Agintaritzaren Aldizkariak, eta maiatzaren 15eko data du. Eibar, Elgeta eta

Bergara artean kokatuko litzateke, Bergarako Basalgo auzotik gertu. Berria egunkariak argitaratu duenez, "Gipuzkoan baimena eskatu duten parke eoliko egitasmoen artean handiena izango litzateke Eibarkoa, Piaspeko egitasmoaren aurretik -Azpeitia, Zestoa eta Errezil-, zeina Statkraft Norvegiako multinazional publikoak egin nahi baitu”.

Bizitza osorako esperientzia

Informazio gehiago:



Joan den astean eman zitzaion amaiera Ikasten Elkarteak antolatzen duen 19. Debabarreneko Esperientzia Eskolari. Armeria Eskolan egin zuten diploma banaketa eta pena handiz, baina bihotza beteta esan zioten agur ikasurteari. Eta ez hori bakarrik, burua ere bete-betea izan dutelako, gauza interesgarri asko landu eta ikasi baitituzte. Orain, ikasurtean garatu duten proiektua jarriko dute martxan: Agurtuz.

Esperientzia Eskolaren 19. promozioiko Ana Suarez, Clara Etxeberria eta Rosa Mari Amesti izan dira gurean ikasurteari erreparosoa egin eta Agurtzen proiektua azaltzeko. Hirurek pena handiz esan diote agur ikasurteari, “bizitzako esperientzia izan delako”, Clararen berbetan, baina gogotsu daude handik sortu den proiektua gizarteratzeko.

Ikasurte honetan 24 lagunek hartu dute parte Esperientzia Eskolan, 20 emakumek eta 4 gizonak. “Esan digutenez, ia beti gertatu izan da horrela, askoz ere emakume gehiagok parte hartzea”, esan digu Rosa Mari. “Badirudi gizonezkoak ez direla ausartzen horrelako ekimenetan parte hartzera”, berretsi du Clarak.

Hasieran, batzuek bistaz ezagutzen zuten elkar, baina gehienak ezezagunak ziren. Horrela, esperientzia honek jende berria ezagutzeko eta lagun-taldea zabaltzeko balio izan die.

Parte-hartzaile bakoitzak bide bat egin du bertan sartu aurretik,



eta Rosa Marik bere esperientzia azaldu digu: “Lagun batzuen gomendioz eman nuen izena. Etxetik irten behar nuela eta zerbait egin behar nuela esaten zidaten, eta izena eman nuen. Niretzat oso bizipen positiboa izan da, etxetik irteteko eta beste jende batekin konektatzeko balio izan didalako”.

Clarak zera kontatu digu: “Jubilatu nintzenean ez nekien egun guztian zehar zer egingo nuen, lan egin barik... Orduan, Esperientzia Eskolaren inguruan zerbait entzun nuen, interesatu zitzaidan eta animatu egin nintzen”.

Anak esan digu berak aspaldi zuela izena emateko asmoa, baina iloba zaintzen duenez ezin izan duela egin orain arte: “Durangon bizi da eta, aurten jantokian dabilenez, arratsaldera arte libre eduki dut eta izena eman ahal izan dut”. Bere ustez, “oso esperientzia gomendagarria da, mundu guztiak probatu beharko luke”.

Horretan guztian, Eva Perez de Albeniz Esperientzia Eskolako koordinatzailearen papera nabarmendu dute. “Taldeko gazteena izan arren, guztion ama izan da”, diosku Anak. “Pertsona zoragarria da, asko zaindu gaitu”, berresten dute beste biek.

Jarduera interesgarriak

Ikasturtean zehar hainbat ekintza egin dituzte. Besteak beste, adituen eskutik gai batzuk landu dituzte eta, hirukotearen ustez, oso gai interesgarriak izan dira. “Ezagutza zabaltzeko eta gai askoren inguruan hausnartzeko balio izan digu”, esan digutenez. “Ez da txikitan eskolara joaten zinenean bezala izan, askoz



Esperientzia Eskolakoak Ondarroara egin zuten irteeran.

>>> Esperientzia Eskolako 19. promozioko ikasleek joan den astean amaitu zuten ikasturtea

ere modu didaktikoagoan landu ditugu gai horiek”, azaldu digu Rosa Marik. Hala nola, sexologiaren, filosofiaren, historiaren eta literaturaren inguruan jardun dute.

Aipatutako gaiak lantzeaz gain, irteerak ere egin dituzte ikasturtean zehar. “Ondarroan izan ginen eta hango bi taldekidek ibilaldi gidatua eskaini ziguten, Kilimon ibaiaren iturburuaz ezagutu genuen...”, aipatu dituzte, besteak beste.

Jarduera horiez gain, eguenetan Ikastenek hitzaldiak antolatzen ditu



Giro zoragarria sortu da taldekideen artean.

Armeria Eskolan eta Esperientzia Eskolakoek bertaratzeko aukera izan dute, goi-mailako hizlariekin solasaldiak edukiz.

Agurtzen proiektua

Esperientzia Eskolako promozio bakoitzak proiektu bat garatzen du. Aurtun, heriotza duinaren inguruan jardun ondoren eta taldean gaiak interesa piztu zuela ikusita, horrekin zerikusia duen proiektua landu dute 19. promozioiko ikasleek: Agurtzen. “Duintasunez Hiltzeko Eskubidea elkartetik etorri ziren, eta Eibarren aurretiazko borondatearen inguruko informazioa jasotzeko aukera handirik ez zegoela iruditu zitzaigun”, diosku Rosa Marik.

Behar hori asetu asmoz, proiektua jarri dute martxan eta horren bitartez aurretiazko borondatearen inguruko informazioa emango diete herritarrei, horren inguruko zalantzak argituko dituzte eta beharrezkoa den dokumentazioa betetzeko laguntza eskainiko dute. Horretara-

>>> Ikasleek esan digute esperientzia zoragarria izan dela eta edonori gomendatuko lioketela

>>> Aurretiazko borondatearen inguruan laguntza eskaintzeko proiektua jarriko dute martxan ekainaren 5etik aurrera

ko, ekainaren 5ean hasita, hilabete bakoitzeko 1. eta 3. eguaztenetan (abuztuan kenduta), 18:00etatik 20:00etara, Untzaga Gizarte Etxeko Arrate aretoan egongo dira zerbitzua ematen.

Hirukoteak azaldu digunez, aurretiazko borondateen dokumentu bat prestatu dute, “gehiengoen beharretara egokitzen dena”, baina norberak beste zerbaite gehiago txertatu nahi izanez gero, aukera izango du. Baina, zertarako balio du aurretiazko borondateen dokumentuak? “Adibidez, bizitzaren momentu batean atzera bueltarik ez duen gaixotasunen bat badut, ez dut nahi nire familiak edo ingurukoek zalantzak izan ditzaten nirekin gauza bat edo beste egiteko. Eta ez dut nahi landare bat bezala egon, kable batzuei konektatuta. Horregatik, burua ondo duzunean, zure nahia zein den idatziz jarri dezakezu eta, kasua ematen bada, hori errespetatu beharko litzateke”, azaldu digu Rosa Marik.



Urkiko paisaia, aintzinako gurutzarekin (1962). 2007an, garbitu eta sendotu ondoren, etxe berrien alboan jarri zuten, amabirjina Elgeta aldera begira eta Jesukristo Eibarri begira, lehen zegoen moduan. INDALECIO OJANGUREN FUNTSA - GURE GIPUZKOA

Okindegira egurra ekartzan zuten mutil pare batek. Zer nolako lanak egiten zizutzen eta idiak nondik nora eramaten zizutzen kontatzen du. Mendaroko Ospaskoa zen bata eta emaztea Urkikoa zuen. Urki nolakoa zen kontatzen du.

Urki ingurua nolakoa zen

Faustina Lopez Larrea
(1908 – 2008)



Elgetakalean jaio zen 1908. urtean. Aita nafarra zen, baina euskaraz ikasi zuen. Ama "Ermuarretakua", Elgetakalean bertan zegoen okindegiko alaba. Eibarko kale zaharrak eta Elgetarako bidea ondo gogoratzen zituen Faustinak, eta batez ere Urki ingurua nolakoa zen gerra aurrean, horixe baitzen beren jolaslekua.

Faustina Lopezi grabatutako pasarteetako baten transkripzioa

Harek mutilzaharrak etortzen zittuan ba, burdixakin laga, hustu egurrakin, pisauta laga ta erreziñua gero ha erateko, juaten zian ganauak eruatera, zu, etxera! Pauso bira, ezta? Aldaparia bajau, panaderixia hor Ermuarretakua, ba, aldapariori bajau ta atzera gero Elgeta kaletik gora eruaten jittuen behixak edo zerak... idixak... han sosisuz gero hartu deixen. Milla bidar gero berba [...] harekin e! Ospas bai, Ospas Mendarokua da, baiña ez da horkua. Andria zan horkua! [Eta Urki zelakua zan orduan? Zelaixak zeren edo...?] Mendixa bai, mendixa, baiña behian esplanadia be bai! Ta goixan gero ermittia! Ta han be ermittia ta mahaixak! Ta han San Lorenzo egunian karnazeruak txuletak eruan, erre, ta Viva la Pepa! Ta tanboliña egoten zan! Tanboliña. [Jai polittak izaten ziran?] Bai... [Eta erromerixia-eta egoten zan?] Beti... "Primero de mayuan" sozialistak batian Urkin, hurrengo Eztixan, ta bai... Gu erromerixia euan lekura.

Musika ona kalean eta jai giroan

Ez zaitez nahastu izenarekin. Ez da tuna bat, txaranga bat baizik. Latuna Bando da Eibarren sortu den txaranga berria eta Gabonak inguruan hasi zuen bere ibilbidea. Musika Bandako kideek osatzen dute txaranga ia bere osotasunean eta gogo handiarekin daude proiektu pertsonal honi maitasun handia eman eta Euskal Herriko txoko guztiak jai giroan murgiltzeko.

BIDEOA



Mila buelta eman ondoren izenari, esperantora jo behar izan zuten txarangako kideek. “Latuna Bando esperantozko berbak dira eta txaranga esan nahi du”, azaldu digu Aner Cardo taldeko saxo-joleak. “Brass band deritzote amerikarrek egin ohi duten txaranga antzeko musika formazioei eta izendapen hori gustatzen zaigu; baina, ingelesezko izen bat ez jartzearen, hizkuntza internazional horretara jo dugu, esperantora”, gehitzen du Andoni Ariznabarreta tronboi-joleak.

Musikak eta jai giroak toki berezia dute gure herrian eta gauza biak uztartzeko sortu da Latuna Bando. Guztira 14 lagunek osatzen dute banda (gehienak eibartarrak dira, baina badago Ermua, Soralueze, Elgoibar, Deba, Mendaro eta Legazpiko jendea ere) eta gehienek Eibarko Musika Bandan jotzen dute. “Zerbait sortzeko gogoia bagenuen. Hau da, bandatik aparte juergarekin eta jaiarekin lotura izango zuen zerbait, eta txaranga sortzea izan zen ideietako bat”, diosku Andonik. Anerrentzat txaranga “proiektu pertsonala da, lagun batzuen artean sortu dugun txaranga herrikoia”.

Esperientziadun musikariak

Lagun artean bai, baina ez edozein modutan. Bandarekin jotzen dutenean sentitzen duten exijentzia bera sentitzen dute txarangarekin ari direnean eta musika ondo jo nahi dute. “Ez dugu edozer gauza egin nahi”, dio Anerrek. “Ondo jo nahi dugu, baina, bandarekin alde-



Latuna Bando txarangak Soralezeko aratosteetan jo zuen.

ratuz, modu informalago batean”, zehazten du Andonik.

Horregatik, gauzak ondo egin nahian, hasieran hilabete batzuetan zehar entseatzeko bai baina kalera irten ezinda ibili ziren, perkusio-jolerik ez zutelako. “Kalean jotzeko demaseko gogoia genuen, baina ez genuen perkusioa joko zuen inor aurkitzen. Eta noski, perkusiorik gabe, gauza ez da iguala, txaranga batentzat beharrezkoa da. Azkenean, lortu genuen bat eta martxan jarri ginen”, azaldu digu Anerrek.

Musikari dagokionez, denetik jotzen dutela azaldu digu bikoteak. “Txaranga batek denetik jotzen du. Orain arte, tanborrada batean jo dugu, aratosteetan, Korrikan, jaietan... Errepertorio zabala dugu eta edozein eskaintzatara moldatzen gara”, kontatu digute. “Pasodoblea jotzea nahi duzula? Ba pasodoblea! Publikoaren eta momentuko giroaren arabera, alde batetik edo bestetik jotzen dugu. Ez da gauza bera Korrika egunean jotzea, euskal abestiak jotzen saiatzen zarelako;

edo jaietan, hor beste jai-giro bat jartzen saiatuko zarelako jendea animatu dadin”.

Toki ezberdinetako taldekideak izanda, ez da erraza izaten entseatzeko momentuak aurkitzea, baina normalean zapatu goizetan egiten dituzte entseguak, Eibarko Musika Bandak entseatzeko duen toki berean. “Zapatu goiza gordetzea zaila izaten da, baina bestela ez dago beste aukerarik”, diosku Andonik. “Beti ez gaude taldekide guztiak entseatzeko, hori izango zen idealena, baina ahal dugun moduan moldatzen gara”, zehazten du Anerrek.

Latuna Bando txarangak Gabonak inguruan hasi zuen ibilbidea, eta uda sasoi iristeko gogoz daude giroa jartzeko

Emanaldi arrakastatsuak

Gabonen inguruan hasi zuen bere bidea Latuna Bandok, eta orain arte zenbait tokitan egon da. “Gabonetan Bermeon egon ginen danborradan jotzen (nahiko gauza arraroa izan zen, baina hango jendea oso pozik gelditu zen), Soralezeko aratosteetan izan ginen, eta baita Igorren Korrika egunean ere”, aipatu digu bikoteak. Oso eskertuta daude, hastea ez delako erraza izaten eta jendeak eurengan konfiantza jarri zuelako.

Latuna Bandok zapore ezinhoba laga omen du toki horietan, Igorretik eta Bermeotik berriz ere deitu dietelako bertan jotzeko. “Datorren astean Igorreko jaietan joko dugu eta irailean Bermeon, benetako danborradan”, diote barrez. “Eta Soraluzen ere seguru joko dugula, hemen alboan dugulako eta herriarekin lotura dugulako”, gehitzen du Andonik.

Jai-giroan eta jende askoren artean jo arren, errespetuz tratatzen dituztela esan digute, baina festa giroan aritzean kontu gehiago izan behar dutela diote, musika-tresnak



ondo zaindu behar direlako edo jotzen ari diren bitartean musika-tresnarekin jo daitezkeelako. “Jende asko badago, taldekideek borobil bat egiten dugu elkarri babesteko. Baina tira, normalean ez dago batere arazorik”.

Festa sasoi

Uda sasoi jai sasoi izan ohi da eta Latuna Bandoren agenda betetzen doa poliki-poliki. Momentuz, hauek dira aurretik dituzten emanaldiak: “Igorren egongo gara datorren astean, Eibarko San Juan jaietan ekainaren 24ko arratsaldean kalejira egingo dugu (19:30etik 21:30era), abuztuan Elgoibarko jaietan joko dugu eta irailean Bermeoko danborradan egongo gara”.

Ziurrenik bolo gehiago irtengo zaizkie udan zehar. “Aste honetan bertan toki batetik deitu digute asteburu honetan jotzeko, baina hain denbora gutxirekin ezin izan gara antolatu”, esan digu Anerrek. Dena dela, proposamen guztiak eskuzabalik hartzen dituzte eta, ahal izanez gero, han eta hemen jotzera animatuko dira, baita despedidetan eta bestelako ospakizun berezietan ere. Beraz, eurekin harremanetan jarri nahi izanez gero, latunabando@gmail.com helbidera idatzi edo Instagram bitartez eurekin harremanetan jarri daiteke.

Andonik eta Anerrek, behintzat, ilusioz begiratzen diote proiektu berriari: “Gogo askorekin gaude eta hau izango da lehen uda guretzat. Jotzen dugun tokietan gustora gelditzen badira, gu pozik. Gauzak ondo egin nahi ditugu: ondo jo, eta oroitzapen on bat laga”.



Euskal Jaiaren asteburu arrakastatsua jai giro apartan

Barixakutik domekara euskal giroa nabarmendu da Eibarko kaleetan. Musika kontzertuak, Azoka, dantzaldiak, txistularien eta trikitilarien kalejirak, erromeriak, kantu-afaria eta herri-bazkaria... ordu gutxi batzuetan batutako egitarau zabal bezain aberatsak eibartarroi jaiaz gozatzeko aukera paregabea eskaini zigun.



Argazkilariak: Fernando Retolaza, Pedro Elizondo, Silbia Hernandez eta Esteban Vouilloz







GORKA ERRASTI • Kultura-Aniztasun teknikaria

“Gu” berria

Begi bistakoa da mundua gero eta anitzagoa dela. Migrazioen fenomeno gure mundu globalizatuaren ezaugarri bat da. Eta izaten jarraituko du. Gure kaleak, herriak, bizitzak zeharkatzen ditu. Fenomeno globalizatua, baina gizarte kohesioa eta elkarbizitza gure herrietan ematen da.

Kultura-Aniztasun handia, kudeatu beharra dagoena. Denok izan beharko genuke gure ardura zatia horretan, gizarte osoak, baita Udal sail guztiek ere. Kohesioa ez da magia bidez sortzen. Horretan asko dugu esateko Gizarte Zerbitzuetako langileok, baina baita Euskara, Kultura, Gazteria, Kirola, Hirigintza eta hamaika alorretakoek ere. Datozen urteetako erronka, koexistentzia batetik elkarbizitza batera jauzi egitea bada, bide hori egiteko denok igo beharko dugu txalupara elkarrekin arraun egitera.

89 jaiotza herrialdeetako eibartarrak bizi gara Eibarren. 4.300 eibartar atzerrian jaiotakoak dira. Hauetako askok hemen jaiotako seme-alabak eta bilobak dituzte. 60. hamarkadan ere estatu espainiarreko beste zonalde batzuetako eibartarrak hartu genituen. Estatuan, baina EAetik kanpo jaiotako eibartarrak ere, beste hainbeste dira, ia 4.000. Hauetako askok ere hemen jaiotako seme-alabak eta bilobak dituzte. Askok gure lagunak, kuadrillakoak, senideak edo ezagunak dira.

Askotan pentsatzen dut immigrazioaz eta etorkinez hain arrotz hitz egiten duenak, oraindik ez duela atzerrian jaiotako lagunik, ezagunik, kuadrillakorik edo seniderik. “Gu” eta “beraiek” terminoetan dabilzanak ere asko dira. Elkarbizitza osasuntsu baterako, ordea, ez al da ezinbestekoa izango “gu” berri bat eraikitzea?

“Kohesioa ez da magia bidez sortzen. Horretan asko dugu esateko Gizarte Zerbitzuetako langileok, baina baita Euskara, Kultura, Gazteria, Kirola, Hirigintza eta hamaika alorretakoek ere”

Biharko Bolari Egunarekin amaituko da Gipuzkoako Hiru-Txirlo txapelketa

Lasturrek hartuko du bihar txapelketa horretako azken jardunaldia, ohikoari jarraituz bertan jokatu den Lehendakari Sariarekin: txapelketako sailkapen orokorreko 64 onenek hartuko dute parte bertan. Oraingoan Bixente Zulaika, alde batetik, eta Mari Carmen Olabe eta Felix Gomez bikotea, bestetik, izango dira omenduak "hiru-txirloko munduari egindako ekarpenagatik". Lehendakari Saria eguerdikoko 12:00etan abiatuko da Lasturko bolatokian eta, jarraian, 14:30etik aurrera bertako tabernan bazkalduko dute.

Bestalde, Bergarako San Joxepe bolatokian jokatu azken tiraldiaren ondoren, berdinketa eman zen lidergoan eta, hori hausteko borrokan, Angel Ibarluzea elgoibartarra izan zen finen, Asola Berriko Garikoitz Rodriguezen aurrean. Floreagako Santos Muñoz biengandik sei txirlora geratu zen. Taldeka ere borroka bera eman zen, eta Elgoibarko San Miguelek txirlo bakarrarengatik hartu zion aurrea Asola Berriri. Emakumezkoetan ere, Enara Montiel eibartarra bigarren sailkatu zen, San Joxepeko Olatz Aranorengandik bost txirlora.



Mari Carmen Olabe eta Felix Gomez omenduko dituzte bihar Lasturren.

Eta jubenetan, Asola Berriko ordezkarien arteko borrokan, Beñat Oñederra txirlo bakarrarengatik gailendu zitzaion Julen Urangari. Azkenik, herrietako txapeldunei dagokienez, Sergio Rodriguez izan da Eibarkoa.



Eibar Eskubaloiko taldeek denboraldia itxiko dute bihar

Mek Zilarrezko Mailako emakumezkoen taldeak bihar 19:00etan Elgoibarren aurka neurtuko ditu indarrak, Kopako iazko finala errepikatuz, baina oraingoan Elgoibarren. Denboraldiko azken partidua izango dute Andoni Perezeneke, eta finalerdiko partidua errepikatu nahiko dute, ahal den neurrian erritmoa eurek markatuz. Gizonezkoen 1. Mailako taldeak, bestalde, Urumea Kopako finala jokatu du Zumarragan, honek ere bihar, arratsaldeko 18:00etan hasita. Urola izango dute aurkari, Kopako multzoen fasean eibartarrak baino hobeto jokatu duen taldea. Aipatutako partidua bi horiekin amaituko dute denboraldia Mek Eibar Eskubaloiko ordezkariak; txapelak lortzeak ikutu berezia emango liokete bi taldeetako ibilbideari.

Yurani Blanco irabazle Arrateko helmugan

Domekan jokatu UCI Pro Series mailako VI. Eibarko Hiria Sari Nagusiak proba amaiera bikaina erakutsi zuen Azitaingo poligonotik gorako azken kilometroetan. Bertan Laboral Kutxa taldea izan zen nagusi, Yurani Blanco irabazlea eta Usoa Ostolaza bigarrena talde berekoak izanik. Ez hori bakarrik, Lourdes Oyarbide tarteko helmugan saria jaso baitzuen. Taldeka, jakina, eurentzat izan zen saria, Movistar-en

aurretik. Garailearengandik bi segundora helmugaratu zen Ostolaza bigarrenak euskaldun onenarena jaso zuen eta sei segundora sartu zen Henrietta Christie hirugarrenak 23 urtetik azpiko onenarena. Guztira 66 txirrindularik amaitu zuten proba, 15 kontroletik kanpo helmugaratu ziren eta beste 24 erretiratu egin ziren. Yurani Blanco irabazleak 3:08:07ko denbora egin zuen, orduko 37,126 kilometro eginez.



Alberto Ferreiro squash Espainiako azpitxapeldun beteranoetan

Maiatzaren 24an eta 25ean Malagako Fuengirolan jokatu-tako Espainiako Beteranoen Txapelketan Klub Deportiboko squash jokalariek 45 urtetik gorako mailan parte hartu zuen, eta baita finala jokatu ere; hori bai, azkenean ezin izan irabazi faborito zen egungo txapeldunari. Alberto txapelketako bigarren zerrendaburua zen eta, aurreko partidu guztiak irabazita, finalean amore eman behar izan zuen zerrenda horretako buru zeneren aurrean.

Xaniak ezin izan zuen Ligako txapela berretsi Kopan: Adahik 3-2 irabazi zion

Aurreko zapatuan Unben jokatu-tako futbol-zaletuaren Kopako finala Adahi Eraieder taldearentzat izan zen, finalean Xania Tabernari 3-2 irabazita. Talde irabazlearen hiru golak Valderasek sartu zituen, eta Xaniak egindako biak Ikerrek gauzatu zituen. Partiduko jokalarionenaren saria ere Adahiko Valderasek bereganatu zuen. Datorren domekan, ekainak 2, urterokoari jarraituz, Ermuko eta Eibarko Ligetako txapeldunen arteko jokatu da Ermuan, goizeko 10:00etan hasita. Kopako finalean galtzaile izan den Xania Taberna izango da gure herriko ordezkaria, Ligako irabazle bezala, eta Murruga Ventanas Rada

izango du aurkari, Ermuko ligako txapeldun gisa.

Partiduaren amaieran Liga txapelketaren sariak ere banatu ziren. Bertako emaitzak gogora ekarri, Xania Taberna izan zen txapeldun, Malape Taberna txapeldunorde eta Adahi-Eraieder Kopako garailea hirugarren. Kiroltasun saria Gastro Gildarentzat izan zen, Xania Tabernak irabazi zuen gol gutxien jasotakoarena, eta Adahiko Ander Valderasek eta Malapeko Unai Arriolak berdindu egin zuten goleatzaile nagusien sailkapenean. Azkenik, errekonozimendu sariak egon ziren BOJ-eko Antonio Grande eta Jose Luis Alonsorentzat.



Kopako finala jokatu zuten bi taldeak: bakoitzak titulu bat irabazi du denboraldi honetan.


Herriko pilotariak Kaelo Memorialean eta San Juan Torneoan

San Juan jaietako urteroko pilota torneoaren lau kanporaketa jokatu-ko dira gaur Astelena frontoian; eta jarraian Gipuzkoako 4 t'erdiko txapelketako final-laurdenetako beste bi. 17:00etan hasita, ekainaren 15eko finaletara begirako San Juan Torneoako norgehiagokak honakoak izango dira: Aizpitarte-Agote vs Hernaez-Motrico, Arriola-Lasuen

vs Oñederra-Abantzabalegi, Arrieta-Andonegi vs Urain-Iso eta Seguro-la-Eki vs Colmenero-Kerejeta. Eta 19:00etatik aurrera Gipuzkoako kaiolaren barrukoan, bestalde, kadete mailako Azpilikueta eta Varona eibartarren arteko izango da lehenengo, eta Eibarko Ibarra eta Ataungo Saez izango dira ondoren jubenil mailakoan.

Domekan, Klubaren Eguneko Kaelo Memorialaren barruan bi pilota partidu jokatu-ko dira Arrateko frontoian: hasteko, infantiletan, Amillategi eta Gil, nor baino nor arituko dira; eta jarraian, binaka, Azpilikueta eta Varona kadeteak Gisasola eta Amuategi jubenilen aurka. Ohiko bidetik, horko pilotari guztiak Deporrekokoak izango dira.

Tigre de Amaña Memorialaren 1. edizioa egingo dute ekainaren 7an Astelenan



Tatt gimnasioko Edu Urrutia (boxeo) eta Amer Agbalou eta Geaxi Moreda (wu-shu).

Astelenak ohiko boxeo jaialdia hartuko du aurten ere Sanjuanetako jai-egitarauaren barruan. Oraingoan, gainera, aurretatuta dator eguna, ekainaren 7rako antolatu baitute jaialdia. Barixaku horretako ekitaldia 22:15ean hasiko da eta zortzi borrokaldi jasoko ditu, bost amateur mailako boxeokoak eta beste hiru aurten ere abiatuko den I. Eibarko Hiria Wushu Kopakoak. Borrokaldi horietan, gainera, Eibarko Tatt gimnasioko hiru ordezkari izango dira parte hartzen: Edu Urrutia boxeoan eta Amer Agbalou eta Geaxi Moreda wu-shu modalitatean.

Aurreko urteetan Jose Perez Amañaiko Tigrearekin batera egi-

taraua antolatzen jarduten zuen Ramon Quinak oraingoan bere gain hartu behar izan du pisu guztia. Hala ere, ondo moldatu da Ttatt gimnasioko arduraduna eta, kirol modalitate horietako euskal ordezkari kanpo, Errioxako eta Madrilgo borrokalariak "fitxatu" ditu jaialdirako. Sarrerak dagoeneko salgai daude Gym Ttatt-en (12 euro gradakoak eta 15 aulkiak) eta, bestela, leihatilan eskuratu ahal izango dira egun berean, 3 euro gehiago ordainduta.

Jaialdiko boxeoko elite mailako borrokak, hiru minutuko hiru asaltokoak, honakoak izango dira: 48 kiloraino, Haizea Artiaga (Gasteiz Sport) vs Andrea Martinez (Lo-

groño); 62raino, Maria Dominguez (Gasteiz Sport) vs Aitana Ortigosa (Logroño); 72raino, Edu Urrutia (Tatt Eibar) vs Gorka Luaces (Gasteiz Sport); 75eraino, Ayyoub Lamzalzi (Gasteiz Sport) vs Unai Ibañez (Bilbo); eta 67raino, Angel Nuñez (Gasteiz Sport) vs Andres Castro (Bilbo). Eibarko Hiria Wushu Kopako lehenengo edizioako hiru lehiak, bestalde, honakoak dira: 80 kilora arte, Amer Agbalou (Tatt Eibar) vs Daniel Nestares (Gym Feijoo Madrid) eta Pablo Benavente (Gym Feijoo Madrid) vs Fermin Setoian (Pamplona); eta 52 kilora artekoan, Gaaxi Moreda (Tatt Eibar) vs Natalia Silvestre (Gym Feijoo Madrid).

Deporreko Klubaren Eguneko Finalistarena ospatuko dute mendikoek etzi Arraten

Urterokoari jarraituz, ekainaren lehenengo asteburuan Deporrek bere eguna ospatuko du Arraten, tartean mendiko batzordekoen Finalistarena. Mendiko batzordekoek irteera prestatu dute domekarako, "08:00etan Depor azpitik irten, handik 10 minutura Urkizuko iturrian taldera batu eta, GR-tik Santa Kurutzera jotzeko lehenengo, eta handik Kalamuara gero". Tontor horretan klubeko banderoloarekin talde-argazkia ateratuko dute, jarrera Arratera jaisteko. Behin han, 12:15ean aureskua dantzatuko da eta dominak banatuko dira: "Guztira 34 haur izango dira domina

jasotzen, herriko zortzi ikastetxeak ordezkatzuz". Antolatzaileek diotenez, aukera egongo da gero Arraten egunpasa gelditzeko, "baina bazkaria etxetik eraman beharko da".

Pirinioetara irteera

Ekainaren 15 eta 16ko astebururako irteera antolatu dute mendi batzordekoek Pirinioetara. Garmo Negro eta Peña Roya izango dira egun horietako helburuak. Aurreko urteetan eguraldiagatik bertan behera laga behar izan zituzten irteerak dira horiek eta izena lehenbailehen ematea komeni da, plazak mugatuta daudelako. Lehenengoan 3.065



metroko Garmo Negro igoko dute, Panticosako bainuetxetik abiatuta; eta bigarrenean 2.578 metroko Peña Roya eta 2.555eko Peña Blanca, Panticosatik hasi eta Santa Elenan amaituz. Irteera Elgoibarko Morkaiko mendizale elkartearekin batera antolatu dute.

“Gure bezero asko aurretik bezero izandakoen seme-alabak eta bilobak izan dira”

ALICIA LANDA eta JOSE ANDRES GARCIA • Benicoba dendakoak



Dendariak jubilatzearekin batera, gaur bertan itxiko dituzte Benicoba elektragailu-dendaren ateak behin-betiko. Aurretik, baina, eibartar askok betidanik ezagutu dugun dendari buruz aritu gara berbetan Alicia Landa eta Jose Andres Garcia senar-emazteekin.

Hirurogeitalau urtebete berri dituen dendak gaur bertan itxiko ditu ateak, betirako. Bizitza osoa bertan beharrean eman duten Alicia Landa eta Jose Andres Garcia senar-emazteei ondo merezitako atsedena ekarriko die jubilazioak. Baina, horrekin batera, Juan Gisa-sola kalean horrenbeste urtetan egon den dendaren historia amaituko da.

Noiz eta zelan hasi zineten dendan lan egiten?

A: Gure aurretik nere gurasoak aritu ziren. Baina denda aurretik zabaldu zutenak Benito eta Alcoba senar-emazteak izan ziren, hortik dator Benicoba izena. 1960ko maiatzaren 12an eskatu zuten Udalean denda zabaltzeko baimena, eta baimen hori butanoa banatzeko bulego gisa aritzeko eskatu zen. Hortik aurrera, eboluzionatzen joan zen. Eibarrera bizitzera etorri zen kanpoko jendearen eskariari erantzuteko butano-aparatuak saltzen hasi ziren, gero elektragailuak sartu zituzten, eta horrela joan zen poliki-poliki hazten. Gero Luciano Larramendi sartu zen dendan, geroago nere gurasoak ere, bazkide gisa. Dendaren izenari eutsi zitzaion eta, gurasoak jubilatatu zirenean, gu hasi ginen. **Biek elkarrekin lanean eman dituzuen urte hauetan, nolako aldaketak gertatu dira?**

Sorreratik gaur arte, elektrotresnak beti egon dira presente dendak jarraitu duen lerro nagusian. Baina, horiekin batera, arlo ezberdinak ikutzen joan gara, sasoiaren arabera.

J.A: Nolabait bereiztearren, butanoarekin hasi ginen, baina gas naturala agertzearekin batera butanoak behe-ra egin zuenez, gu ere gas naturalera pasatu ginen eta, horren ondotik gaur arte, elektrizitatea izan da nagusi.

A: Bai, baina bien bitartean beste gauza batzuk egin ditugu: sasoi batean bideokluba izan genuen, beste sasoi batean haurrentako kumak, aulkiak eta haurtxo-orgak ere saldu genituen, sukaldarako altzariak... Eta Iberdrolaren arretagunea ere izan ginen.

Dendan gauzak salteaz gain, gailuen konponketak eta zuek egiten dituzue?

J.A: Butanoa nagusi izan zen garaian bai, butano-berogailuak konpontzen genituen, etxez etxe. Baina, bestela, ez dugu elektrotresnarik konpontzen.

A: Konponketarik ez, baina guri zerbait erosi digun norbaitek konponketa edo moldaketaren bat egitea eskatzen badigu, adibidez hozkailua armairuan sartzen ez zaiolako, horrelakoak egin izan ditugu.

Urteekin asko aldatu dira etxerako erosten ditugun elektrotresnak?

J.A: Aldaketarik handiena telebistetan gertatu dela



Dendako atea betirako itxi eta gaur bertan aurkeztu dute merkataritza-jardueran baja emateko eskaera, jubilarioaz gozaten hasteko. SILBIA HERNANDEZ

penstzen dut. Soinu-ekipoak ere izugarri aldatu dira, asko saltzetik ia ezer ez saltzeraino. Eta gailuak ere asko aldatu dira, mekanikoak izatetik erabat elektronikoak izatera pasatu dira.

A: Eta bezeroek beraiek sortutako premietan ere izugarritzko aldaketa eman da. Lehen luxuzkotzat jotzen ziren gauza asko gaur egun premiazoak bilakatu dira jende askorentzat. Ontzi-garbigailuarekin gertatu da hori, adibidez. Lehen etxe bakoitzean telebista bakarra zegoen, eta gaur egun hiru edo lau telebista izatea ohikoa bihurtu da. Baina, edozein modutan, premia horiek jendeak sortutakoak dira, ez dira beharrezkoak berez.

Eta zuen bezeroak, horiek ere aldatzen joan dira?

A: Ez pentsa, azken batean bezeroak gizartearekin batera aldatzen joaten dira. Baina, gure kasuan, belaunaldi berriak gurera etortzen ikusi ditugu. Gaur egun gure bezero diren asko, aurretik bezero izandakoen seme-alabak eta bilobak dira.

Batez ere Eibarkoak dira, ala inguruko herrietatik ere etorri zaizkizue?

J.A: Nagusiki bezero eibartarrak izan ditugu, baina ingurutik ere asko etorri zaizkigu: Soraluze, Ermua, Deba, Mendaro, Elgetatik...

A: Eta Deban edo Donostian etxea daukaten bezero eibartarrei ere sarritan eraman dizkiegu haraino hemen erositako gauzak, pentsa! Ez dugu ahaztu behar Eibar eskualdeko burua izan dela, puntu neuralgikoa inguruko herrietzat, nahiz eta gaur egun gauzak asko aldatu diren. Baina beste sasoi batean toki askotatik etortzen ziren Eibarrera, hemen denetarik zegoelako, baina orain beste toki batzuetara, Eibartik kanpora joaten dira bila.

Hiriburuetan-eta zabaltzen joan diren merkataritza gune handiek kalte handia egin dizute?

J.A: Orohar, denda txikiei ez diete mesederik egin. Hala ere, gure kasuan ez dut uste asko kaltetu gaituztenik. Azken batean, gure sektorean behintzat, jendeak nahiago izaten du ezagutzen duen norbaitengana jotzea arazoren bat sortzen zaionean, badakielako konponduko diola.

A: Bai, jendeak gertutasun hori asko estimatzen du. Zerbait hondatzen denean, iturginari edo dena delakoari zuk deitzea, zu guztiarekin arduratzea asko eskertzen dute. Batez ere norberaren etxera joan behar denean, badakielako gu joango garela, ezezagun bat joan beharrean.

“Poesia gaitz auto-immunea da. Behin gaixotuz gero, defentsarik gabe, barrutik jaten zaitu”

JOSE LUIS OTAMENDI • Idazlea



Jose Luis Otamendi (Azpeitia, 1959) izan da Harixa Emoten euskarazko irakurle-taldeko azken gonbidatua. “Landura” (Susa, 2022) poesia-liburuarekin izan dugu Eibarren, 47 poema biltzen dituen lanarekin, Ainhoa Aldazabalek gidatutako saioan. Ibilbide luzeko poeta azpeitiarra Eibarrera zetorrela aprobetxatu dugu berarekin solasaldia izateko.

Landura izenburua jarri diozu zure azken lan honi, eta hainbat poema hornitzen ditu. Nondik dator hitza eta zer adierazteko erabili duzu?


Landura lurruna da, gandua da, lausoa, geuna, lanbroa. Nik dakidala Azkoitian erabiltzen zen hitza da, eta Xabier Gantzaraini artikulu batean irakurri nionean sorgindu egin ninduen pixka bat. Hortik dator.

Hezetasun eta tenperatura kontrastea tarteko, kanpoa eta barruaren artean osatzen den ur pelikula da landura, kristal gainean ageri ohi dena argien. Zer adierazi nahi dudana? Askorako eman dezake hitz lauso horrek testuinguruaren arabera. Aspaldi honetan bizi dugun aldiak gauzak distantzia edo geruza modu baten atzetik begiratzera garamatza. Hor denetik nahasten da: ziurgabetasuna eta iragana beti hobia izan dugun ustea, izurri eta gatazken mehatxua, bortxa matxista eta joera autoritarioak... Eta sozialki ez gaude oso sendo horri guztiari aurre egiteko oraintxe bertan.

Lurrun geruza hori, baina, aldi berean, bada sormenerako eta ekintzarako espazio bat ere, zorionez. Sormena eta elkartasuna dira garai zailetarako helduleku ona.

47 poema bildu dituzu liburuan. Zugan ez da ohikoa, baina poemak ez dituzu ataletan banatu oraingoan. Egitura aldetik zelan erabakitzen da hori?

Behar bada liburuaren bildu itxura nabarmendu nahi



nuelako, hasi eta buka zuzenean bota nahi nuelako testu sorta hori. Alegia, hor azpimarratu nahi ditudan gaiak eta formak denak segidan emanda, etenik gabe, galdu baino gehiago irabaz zezaketelako akaso. Adierazkortasunean edo irabazi hain zuzen. Eta ataletan banatzeak iradoki dezakeen gradazio edo eskailera egituratik libre eskaini. Kolpe bakarreko “ekintza poetikoaren” itxuran antolatatu testuak.

Obra honek biltzen dituen testuetako asko itxialdian landu zenituen, giro horrek pisu nabarmena du. Nola baldintzaten du horrelako egoera batek poema horiek idazterako orduan?

Liburu bakoitzarekin saiatzen naiz ahalik eta zuzenen eta ahalik eta ederren erasaten nauten garaian garaiko kontuen gainean idazten. Bizi dudana islatu nahiko nuke dakidan eran. Eta muturreko inguruabarrak egokitzen direnean, horiek aparteko presentzia hartzen dute, nahiz inondik ere ez dudana egin nahi izan poema bilduma monografikoa. Pandemiak garai eta espazio estrainioetara ekarri gaitu; etxe barnea, kalea, geure gorputza espazio estrainio eta bereziki problematiko bihurtuta gabiltza harrezkero, nik uste. Pandemiak pandemia, hala ere, bestelako gaien inguruan ari diren poemak asko dira.

Hain zuzen ere, gai aldetik aniztasun handia dago: harremanak, komunitatea, herria... Eta ardura sozialak pisua du. “Zerbait uztearen estimuluak” laguntzen ditu idazterakoan?

Idaztea gozamen iturri dut aurrena, ikasteko bide ere bai, jakina, eta gizarte honetan txertatuta nagoenez, ardura ere bada, gauza asko hartzeaz batera, zeuretik ere zerbait ematen saiatzea. Gabiltzan alorretan gabiltzala ere, hartuak emana du zor, ezta? Jendetasuna, kortesia intelektual molde bat edo.

Nondik irteten da poesia idazteko bulkada?

Ez dakit, jakinminetik, haserretik, desiotik. Mundura jaio eta egokitze lana konplikatu da. Gauza mordo bat etengabe galdezka hasten zaizkizu, hainbeste estimulu, bidegabe eta edertasun dago!, eta mila modu badira horri guztiari zeure erantzunak eman edo galdera propioak formulatzen saiatzeko. Idaztea da horietako bat. Poesia gaitz auto-immunea da. Behin gaixotuz gero, defentsarik gabe, barrutik jaten zaitu.

Irakurleak hezitu egin behar du poesia irakurtzen ikasteko? Eta idazleak ere behar du horrelakorik?

Nik uste, jakituriaren eta ederraren plazeraren beste hainbeste bideren antzera -izan artea, izan zientzia, izan jolasa- poesia ere funtsezkoa dela kontzienteki bizitzeko. Poesia irakurtzea aukera bat da, eta sartzen bazara, arian-arian zeure bidea egingo duzu, inoiz lagungarri gerta dakizukeen inoren gidaritza inposatutik libre.



"Sormena eta elkartasuna dira garai zailetarako helduleku ona"

Tresna bikaina da literatura, beste asko bezala. Jendeari aukera hori ere eskura jarri behar zaio, bakoitzak bere hauetak egin ahal ditzan.

Idazleak ere kontziente izan behar du zein tresna daukan esku artean. Eta gogotik lan egin bere buruari jarri dizkion helburu artistiko eta komunikatiboetara iristen ahalegintzeko.

«Nahiago nuke gauzak argiago esaten baneki», zure berbak dira... Zer esan nahi duzu?

Esan nahi dut sarri arestian aipatutako, bai arte eta bai adierazkortasun xede horietara heltzetik urrun geratzen naizela.

Zerk eman dizu arreta azkenaldian? Zer ari zara irakurtzen?

Azkena irakurritakoen artean, Vladimir Maiakovskiren bi antzerki lan: Lanarteak (euskararen langile profesionalen elkarte), Koldo Izagirrek koordinatuta, atera duen, “1976, Profesionalak izan ginen urtea”; eta Mari Luz Estebanen “Haragizko erreformak” poesia liburua dauzkat gogoan. Orain Mario Puzoren “El padrino” best-seller aspaldikoarekin ari naiz.

Zer darabilzu esku artean? Lan berririk martxan?

Esku artean ezer apartekorik ez daukat. Hori bai, zeharo herdoildu gabe irauteko, egunero samar zerbait idazten ez bada, oharrak hartzen, edo jasotakoak berrikusi eta antolatzen ematen dut neure denboratxo.

Epe laburrera begira ez daukat ezer berririk. Erne bizi garen artean, zerbait etorriko da komeni bada.



Martxa betean ari dira danborradetarako prestatzen

Sanjuanak gero eta gertuago daude eta, danborradetan parte hartuko dutenek, astero praktikatzen dituzte jaietan joko dituzten piezak, eguaztenero egiten dituzten entseguetan. Haurren danborradetarako entsegua 19:00etan hasten da, eta helduen entsegua, berriz, jarraian izaten da, 20:00 aldera. Betiko tokian, Bittor Sarasketa kalean dagoen Beistegi eraikinean egiten dituzte saioak, eta apirilean hasi arren, norbait azken momentuan parte hartzera animatuz gero, oraindik aukera badagoela adierazi dute Eibarko Danborradako arduradunek, “entsegu egunean bertara etorri eta ez da besterik egin behar”. San Juan bezperan izaten den helduen danborrada aurten lehenago hasiko dela ere nabarmendu dute: “Orain arte gauerdian hasten ginen jotzen, Untzagan, baina aurten irteera-ordua 22:00etara aurreratzea erabaki dugu, hain berandu ez amaitzeko”.

Atzerritarrak gaitzeko ikastaroak uztailean

Empalabramiento atzerritarrentzako gaitzeko eta gaztelania ikasteko ikastaro trinkoak egingo dira uztailean Portalean. Klaseak astelehenetik barrixakura bitartean izango dira: goizez, 10:00etatik 13:00era alfabetizazioa emanango dute. Eta, arratsaldeko 15:00etatik 18:00etara, nazionalitatea lortzeko gaztelania azterketarako maila (A2) eskainiko da. Batean zein bestean izena emateko epea astelehenean hasi eta ekainaren 17an itxiko da. Informazio gehiago nahi izanez gero, edo izena emateko, 943 708 440 telefono zenbakira deitu edo imigrazioa@eibar.eus helbidera mezua idatzi daiteke.



“Sortze berri bat” liburuaren aurkezpena Andretxean

Indarkeria obstetrikoiari buruz dihardu Estitxu Fernandez Maritxalarrek idatzi berri duen *Sortze berri bat* liburuan, eta hori aurkeztuko du martitzenean, 18:30ean Andretxean. Kontzeptuari buruzko sarrera mamitsu baten ostean, hainbat emakumeren lekukotzak jaso ditu idazleak, “gozo bezain zorrotz, indarkeria obstetrikoiari hitzak, ahotsa eta gorputza jartzea, sendabide ez ezik, harekin bukatzeko lehen urratsa delakoan”. Fernandezek arabera, “aldagai kultural, ekonomiko eta egiturazkoek eraikitzen dute indarkeria obstetrikoa; emakumeen haurdunaldi, erditze eta erdiondoan osasun-sistemako profesionalak emakumeari edota umeari ematen dioten tratatu txarraz ari gara, eta ondorio fisikoak eta psikologikoak eragiten ditu. Ederki kabitzen da, beraz, patriarkatuaren baitan”. Aurkezpena euskaraz izango da.



Zeramika eta Marrazketa ikasleen artelanak Portalean

Atzo inauguratu zuten Portaleko erakusketa aretoan Zeramika eta Dibujo Udal Eskoletako ikasleen ikas-turte amaierako erakusketa, kurtso honetan zehar egindako artelanekin. Ekainaren 16ra arte egongo da ikustera joateko aukera, ohiko ordutegian.



“Ketariatik mundura” nanopastorala aurkeztuko dute domekan Arraten

Juan Sebastian Elkano marinel getariarraren eta lehen mundubiraren inguruan Mixel Etxekoparrek idatzitako *Ketariatik mundura* nanopastorala eskainiko dute domekan Arraten, gurutzean, 13:00etan (eguraldiak lagunduko ez balu, elizako arkupeetan egingo litzateke, ordu erdi geroago, 13:30ean hasita). Zuberoako pastoralen eredura egindako lana da, baina Hebertik-ek formato txikian edo nanoan aurkezten du. Bi musikari (pastorala idatzi duen Etxekopar eta Jean Kristian Galtxetaburu) eta hiru kantari-dantzari-aktore (Ihitz Iriart, Maika Etxekopar eta Beñat Larrori) arituko dira, ordu bate pasako iraupena duen ikuskizuna eskaintzeko. Azaldu dutenez, “bidaiaren argiak eta itzalak gogoan izan ditu Etxekoparrek, abenturaren tamaina, aniztasunaren lilura, kolonizaziorako lehen urratsa... Historia txatalak, fikzioa eta mitologia nahasten dira kontakizunean”.

Antolatzaileen berbetan, “itsasoa eta marinelen munduarekin lotutako kantu, antzerki, musika eta dantza ikuskizuna da *Ketariatik mundura*, eta Arraten ere eutsiko dio itsasoarekiko lotura horri. Arratetik itsasoa ikusten dela, eta itsasotik Arrate, ikasten dute eibartarrek umetatik. Eta, are gehiago, bizitza Arratetik datorrela, hain zuzen ere itsasontziz, Arrateko elizako sabaitik zintzilik dagoen ontziari esker”.

Klub Deportiboaren mendeurrena

Aurten Eibarko Klub Deportiboaren mendeurrena ospatzen dela eta, horren aitzakiarekin antolatu dute ekitaldia Deportibokoek, Udalaren laguntzarekin: “Klubeko Eguna bihurtuta dagoen garai bateko Finalista Egunaren testuinguruan eskainiko da Arraten nanopastorala, mendi-ibilaldi, pilota partiduak, soka-dantza, domina banaketa eta jolas artean”.



Rock taldeen moldaketak joko ditu gaur Musika Bandak

Kaleko kontzertuen programari jarraituta, Eibarko Musika Bandak kontzertua emango du gaur, 20:00etan, Toribio Etxebarria kalean (euria egingo balu, udal-tertxeko arkupeetan joko lukete). Oraingo honetan rock abestien moldaketak eskainiko dituzte, Andoni Vazquezek zuzenduta. Led Zeppelin, Sting, Aretha Franklin eta Guns N’Roses bezalako taldeen bertsioak eskainiko dituzte, besteak beste. Bandako zuzendariaren berbetan, “honekin ohiko emanaldiei amaiera ematen diegu, eta hurrengoak kontzertu potente eta bereziak izango dira, Sanjuanetako kutsuarekin”.

Orozen erakusketa Urretxun

Esteban Oroz Eibarko Artisten Elkarteko presidentek *Atzoko eta gaur egungo pintura eta...* izeneko erakusketa zabalduko du ekainaren 7an, Urretxuko Juan de Lizarazu aretoan.




Ekainaren 23ra arte egongo da zabalik, martitzenetik domekara, 17:30etik 20:30era.

Zine-forum feministaren hurrengo saioa ekainaren 7an


Pagatxa Emakume Elkartek Eibarko Udaleko Berdintasun zerbitzuaren laguntzarekin antolatzen duen zine-forumaren saio berria egingo da ekainaren 7an, 18:00etan Armeria Eskolan. Oraingoan, Alejandro Marín zuzendariaren *Te estoy amando locamente* filma proiektatuko dute. Kontatzen duen istorioa Sevillan gertatzen da, 1977an, homosexualitatea delitu den garaian. Sarrera librea izango da.

ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

5		7	6	3	9
				1	
9			8	7	6
			5	6	4
	5			2	
8	7	9			
	7	9	1		6
	8				
3	4	8	2		5



soluzioa



soluzioa

ZERTXOBAIT ZAILAGOA

	4	1			
	2			9	3
1	5	2			8
2	5	7			
	4	1	5		
		5	2	7	
1			4	6	8
	9	8		3	
			7	2	

**S
U
D
O
K
U**



AURKITU EZBERDINTASUNAK: 7 GOIKOAN ETA 10 BEHEKOAN



Maiatzak 31 / Ekainak 6

BARIXAKUA 31

DANTZA

19:30 Nele Dantza. Ikasturte amaierako ikuskizuna. 3 euro. Coliseo.

MUSIKA

20:00 Eibarko Musika Bandaren rock kontzertua. Toribio Etxebarria (euria egingo balu, udaletxeko arkupeetan).



URKIKO JAIAK

23:00 Rock kontzertua, The Pladures, The Jacintones eta Ad Eternum taldeekin. Urki.

ZAPATUA 1

KIROLA EUSKARAZ BIZI

08:00 Iturburura autobusa.
10:15 Desfilea.
10:30 "Euskara da Euskal Herri-Bazen behin".
10:45/13:30 Kiroi-probak.
13:30 "Harro herri Korrika" abesti/dantza.
15:00 Adolfo Jainaga.
15:30 Apar-festa.
16:00 Domina-banaketa. Iturburu.

TONBOLA SOLIDARIOA

Egun osoan, Jende Xumea Gipuzkoaren aldeko tonbola, 2.000 sari baino gehiagorekin. Untzaga.

URKIKO JAIAK

12:00 Paella-lehiaketa eta herri-bazkaria. Arrateko Andra Mari eskola.
23:00 Dantzaldia, Ekhy Fusion Show orkestrarekin. Urki.

DANTZA

19:30 Nele Dantza. Ikasturte amaierako ikuskizuna. 3 euro. Coliseo.

HITZA SOLAS

19:30 Bakarriketak: Manex Astigarraga eta Esti Curiel. 5 euro.
21:00 Bertso-afaria: Aroa Arrizubieta, Igor Galartza, Maite Sarasola eta Aitor Tatiegi. 15 euro (egitarau osoa). Eibarko Gaztetxia.



DOMEKA 2

URKIKO JAIAK

09:30 Mendi lasterketa, Galdaramiñora.

URTZI RUGBY EGUNA

09:30 Beteranoei harrera.
10:30 Seniorrei harrera.
11:00 Beteranoen partida. Pintxoak eta edariak harmailako tabernan.
12:00 Seniorren partida.
14:00 Lagunen omenaldia.
14:30 Hirugarren denbora, janari, edari eta musikarekin. Unbe.

AZOKA

10:00/14:00 Debabarrena eskualdeko ekoizleen azoka. Goienetxe (Mutriku), Mausitxa (Elgoibar) eta Egotza (Soraluze) baserrietako gaztak, eta Elgoibarko Lizagasarrek sagarrekin egindako produktuak. Untzaga.

KLUBAREN EGUNA

11:00/12:30 Kaelo Memoria, Arrateko frontoian.
12:15 Soka-dantza, Arrateko zelaian (parte-hartze irekia).
12:30/13:00 Mendiko dominen banaketa, kolonia aurrean.
13:00/14:00 Nanopastorala, gurutzean.
14:30 Bazkaria, zelaian (norberak bere bazkaria eraman behar du). Arratsaldean: atletismoa, xake-erraldoia, barruak, jolasak... Arrate.



EIBAR-ERMUA MARTXA

12:00 Eibar-Ermua Palestinarekin martxa. Untzagatik Sallabenteko frontoira. Ermutik 12:30ean irtendako martxarekin bat egitea.
13:00 Ekitaldia. Sallabenteko baseliza aldameneko frontoia.

MARTITZENA 4

LIBURU AURKEZPENA

18:30 "Sortze berri bat. Indarkeria obstetrikorik gabear", Estitxu Fernandez Maritxalarren liburu-aurrekeza. Andretxea.

EGUAZTENA 5

LATIA EMON!

Latekin egindako muralen erakusketa, zumba-saioak, pintxoak, musika... Energia-efizientziari eta energia berriztagarriren instalazioari buruzko informazio-mahaia. Untzaga.

AGURTZEN

18:00/20:00 Aurretiazko Borondateen Dokumentu-ari buruzko informazio-zerbitzua, Ikastenen eskutik. Untzaga gizarte zentroa (Arrate aretoa).

DANBORRADA

19:00 Umeen entsegua.
20:00 Helduen entsegua. Beistegi eraikina (B. Sarasketa).

ERAKUSKETAK

Ekainaren 14ra arte:

- "HILEKOA(K)" Ainhoa Aldazabal Gallastegi-Skolastikaren erakusketa (Andretxea).

Ekainaren 18ra arte:

- DIBUJO ETA ZERAMIKA UDAL ESKOLAK (Portalea)

Urriaren 20ra arte:

- "MUSEOKO ERTZ ZORROTZAK" (Armagintzaren Museoa)

ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- 2an: 20:00
- 3an: 19:30

"As Neves"
 DRAMA


2024/Espainia/83'
 Zuzendaria: Sonia Mendez
 Aktoreak: Andrea Varela,
 David Fernandez, Antia Mariño
Nerabezaroa/Desagerpenak

2 ARETOA

- 2an: 17:00, 20:00
- 3an: 19:30

"Hasta el fin del mundo"
 DRAMA


2023/AEB/129'
 Zuzendaria: Viggo Mortensen
 Aktoreak: Vicky Krieps, Viggo
 Mortensen, Solly McLeod
Western/Sezesio Gerra

ANTZOKIA

- 2an: 17:00 (1. Aretoa), 20:00
- 3an: 19:30

"Furiosa: la saga Mad Max"
 AKZIOKOA


2024/Australia/148'
 Zuzendaria: George Miller
 Aktoreak: Anya Taylor-Joy,
 Chris Hemsworth, Tom Burke
Zientzia-fikzioa/Prekuela

ANTZOKIA

- 2an: 17:00

"Lagunak, erreskatera!"
 ANIMAZIOKOA


2023/Frantzia/99'
 Zuzendaria: Laurent Brui
Abenturak/Bidaia/Erreskatea

FUNEUSKADI
Funerariak

TANATORIO EIBAR

FUNERARIA MUGICA
Funerariak

TANATORIO FUNERARIO ASSOCIATU

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

<p>Eibar: Otaola, 27</p> <p>Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20</p>	<p>Elgoibar: Xaillon, s/n. SIGMA Industrialdea (Otaolako hilerriaren ondoan)</p> <p>Ermuako bulegoa: Marqués de Valdespina, 16</p>
---	--

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao
 Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

Conchi Churruca Uzuriaga

1. URTEURRENA
2023/05/31

Nire betiko pentsamendua
 nere konsolagarria,
 zu gabetanik ezin bizi naiz,
 esaten dizut egia;
 zu bazifake arbola eta
 ni baldin banintz txoria,
 nik zu zifakeen arbola
 hartantxe
 egingo nuke kabia.

- ETXEKOAK -

943 20 67 76

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue.



Zorionak, **IZARO**, aurreko zapatuan 12 urte bete zenuzaten-eta. Musu haundi bat etxeko danon partez!



Zorionak, **PAULTXO!** Atzo 3 urte bete zenuzaten-eta. Segi hain autentikua izaten. Musu bat famelixa guztiaren eta, batez be, Eleneren partez.



Zorionak, **ANTON!!!** Domekan 9 urte beteko dozuz-eta. Patxo mordua eta besarkada haundi bat etxeko guztion partez.



Zorionak, **MARKEL!** Astelehenian 2 urtetxo beteko dozuz-eta! Segi oin arte bezain alai! Asko maite zaittugu!



Zorionak, **AITANA**, 5 urte bete dozuz-eta. Etxeko danon eta, batez be, Markel anaixa eta Maialen lehengusiiaren partez.



Zorionak, **NAHIA!** Domekan 6 urte beteko dozuz-eta. Zoragarri ospatu zure eguna. Asko maite zaittugu. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **MIKEL** Mondragon, astelehenian 10 urte egin zenuzaten-eta. Musu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, **JONE!!!** Domekan 6 urte beteko dozuz-eta! Hainbeste maite zaittugun etxeko guztion partez.



Zorionak, **LUKA**, zure lehelengoko urtebetetzian! Segi gure bizitzak alaitzen. Amatxo, aittatxo eta famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **TIO JOKIN** (atzo) eta **ARALE** (hurrengo eguaztenian urtetxua), zuen egunetan. Laztan haundi bat etxekuen eta, batez be, Aitzen partez.



Zorionak, **AMAMA ARRATE**. June, Aratz, Danel, Unai eta Jonen partetik.

leku berri bat Ego-Gain, 2

TOPA-LEKU
laberna

agunero elkarrekin egoteko

PUBLI RESA
objeto publicitario

merchandising
serigrafia
lanerako erropa

www.publiresa.com
publiresa@publiresa.com
943 701 497 / 615 798 419
Armagin, 3-5 behea

Iragarki laburrak



943 20 67 76
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak etakitto.eus webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

1.1. Salgai

- Etxebizitza salgai Estaziño 4an (4. pisua). 4 logela, egongela, 2 bainugela. Dena kanpora begira. Trastelekuarekin. 661874548.

1.2. Errentan

- Pisua hartuko nuke alokairuan. 2 logelakoa. 607841549.

3. LOKALAK

3.1. Salgai

- Lokal industrialala salgai. 667895597.

3.2. Errentan

- Garajea alokagai Eibarko erdigunean. 631419458.

4. LANA

4.1. Lan bila

- Neska eskaintzen da umeak zaintzeko. 688728655.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. 641756213.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak (sozio-sanitario titularekin) edo umeak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Orduka. 624828670.

- Emakumea eskaintzen da kamarera edo saltzaile jarduteko eta nagusiak zaintzeko. 617383494.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta pegorak garbitzeko. 631141454.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Orduka. Esperientzia eta erreferentziak. 607841549.
- Emakumea eskaintzen da arratsaldez nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. 638515953.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarak egiteko eta nagusiak zaintzeko. 688691739.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Orduka. 643933039.

4.2. Langile bila

- Sukaldaria behar da ostalaritzako proiektu berri baterako. Bertako ardura nagusia bere gain hartzeko gaitasunarekin. Bidali curriculum: proiektuaostalaritza@gmail.com.
- Gaixo batek zaintzailea behar du etxean laguntzeko. Orduka. luengo41@gmail.com

5. IRAKASKUNTZA

5.2. Eskaintzak

- Neska eskaintzen da ingelesezko klase partikularrak emateko. 688728655.
- LH, DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 687937827 eta 943584166. Patrizia.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitate prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK

6.1. Salgai

- Jatetxea ixten dela-eta, mahai, silla, jarleku, makineria eta baxera edo ontziteria salgai. 682737282.

Eibarko PROFESIO LIBERALAK



ABOKATUAK

CRISTINA BAZ LARRAÑAGA

Fermin Calbeton 4, 3 esk.
Tel. 943 12 80 55
www.cristinabaz.com
cristinabaz@icagi.net

EGUREN&ASOCIADOS

Urtzaile 1, 2
Tel. 943 20 41 94
Fax. 943 82 00 06
egurenyasociados@gmail.com

AHOLKULARITZAK

GAURVE

Fermin Calbeton 13-15
Tel. 943 20 24 61
www.gaurve.es
consultores@gaurve.es

GESTILAN

Zezenbide 4
Tel. 943 20 70 02
www.gestilan.es
gestilan@gestilan.es

ETXE ADMINISTRAZIOAK

CRISTINA BAZ LARRAÑAGA

Fermin Calbeton 4, 3 esk.
Tel. 943 12 80 55
www.cristinabaz.com
cristinabaz@icagi.net

Hemen zure lekua
Informazioa: 943 20 09 18 (...eta kitto!)

Hitzetatik Ekintzetara

Murriztu - Birziklatu - Berrerabili

LATIA EMON!

01 LATAK BILDU
Lagundu latak hartzen, Eibartik zure etxeraino ekintzetara eramanez

02 MURALAK EGUN
Zure hartzailerak muralak sortuko dituzte

03 ERAKUSKETA
Ekainaren 5ean Untzaga Plazan egongo dira muralak ikusgai

IKI!KI! '24

www.debegesa.eus

KALEXKA **Debegesa**



zarelako **para**

Egin zaitez bazkide!

eta kitto!
euskara elkartea